

P. CHARRITTON.—*Pierre Broussain: sa contribution aux études basques (1895-1920)*. Centre National de la Recherche Scientifique. Centre Régional de Publication de Bordeaux. Paris, 1985.

Obra honetan Charrittonek ongi erakusten digunez, Piarres Broussain pertsonaia garrantzitsua izan zen Euskal Herriaren historiarako. Gure mende honen hasieran, behar bada beste inor ez bezalakoa Ifar Euskal Herrian, abertzaletasunaren pizteaz eta kulturgintzarako mugimendu berriak sortzeaz eta ekintzak suspertzez. Bere heriotzaren oroitzapentan oso ongi zion Jean Etcheparek: «Noizbait, bilduko direlarik harek milaka barreiatu eskutitzetarik zombait ehun, jakinen du xeheki Euskal Herriak nor zen zinez Pierre Broussain gaizoa, eta zonbat urrats, ez oro alferrak, dituen erabili bizi zeno, arbasoen lurra maite baino maiteagoz».

Orain, Charritton euskaltzain berriaren eskutik datorkigu hura nor zen argi erakutsiko digun lehen liburua.

Liburu hau Jean Haritschelharren hitzaurrez dator. Lehen partean Broussainen bizitza aztertzen du: familiaren jatorriak Hazparnen oinarrituak, Paris-eko ikasketak, medikuntzarekin batean euskal kulturaz kezkatu hortaz ezagutzen ziren liburuak irakurriz eta gizonik gorenengoeekin harremanak hartuaz, gero herrira itzultzean bertako arazoak zuzenean eramanez, arduraz eta karguz eraman ere, eta hamalaugarreneko gerratea bukatzeaz laster hiltzea gertatu zitzaion, eta bere ekintzak eta lanak hor gelditu ziren nahikoa ahazturik. Bigarren partean Broussainen euskal kulturarako emaitzak, 1895etik 1920ra: ortografiaz eta gramatikaz egin zituen oharrrak, lexikologiaz eta lexikografiaz egin zituen ikerketak, kantaz eta herri-literaturaz eta Broussain idazlea. Hirugarren partea, politikazko militantziaz eta kultur eragiletzaz: Broussainen euskal abertzaletasuna, Broussain eta euskal kultur erakundeak, Broussain euskara batuaren alde eragile eta

egungo egunerako mezua. Gai guziok oharrez eta agiriz ondo hornituak. Bibliografia eta testuan datozen izenen ezerrendak.

27 x 21 zentimetro neurritako liburu horrek 331 orrialde ditu. Bigarren orrialdean Broussain zenaren argazki eder bat dakar, baina ondoko kapituluak zehar berakin harremanik gehien izan zituzten pertsonaienak datoz, plana osozko portreta ederrez: G. Lacombe, R. M. Azkue eta J. Hiriart-Urruty, eta horiez gainera Hazparneko zenbait bista, bertako erro-matar harria, Urkuraiko gurutz hilarria, Broussainen eskuizkribua eta abar. Liburu ederra benetan Piarres Charrittonek dotoradu tesigintzaren parte bat osatzen duen hau. Aditzea dugunez, P. Broussainen gutundegia ere laster argitaratzeko-tan omen du. Betor lehenbait lehen.

Ifar Euskal Herrirako eta euskararentzat ez ezik mende honen hastapenetako historia ikertzeko ere liburu baliagarria iduritzen zaigu. Zer esanik ere ez euskal literaturarentzat zer nolako agiriak eskaintzen dituen. Hain zuzen, horrek bultzatu bai nau aipamen xume hau egitera.

J. S. M.